IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA, SOZIOLINGUISTIKA LANTZEKO EGITASMOA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO.

****

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea Pasaiako ikastetxeetan DBHko ikasleekin hizkuntza asertibitatea, kontzientzia linguistikoa eta hizkuntza portaera ekologikoak lantzeko proiektu integrala diseinatzea eta gauzatzea da.

Baldintza teknikoen agirian zehatzago deskribatuko da kontratazio honen helburua.

Kontratu honek zerbitzuetako administrazio-kontratuaren kalifikazioa izango du.

Kontratuaren xedeari dagokion CPV izendapenaren kodifikazioa:

80000000-4 Irakaskuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak

80100000-6 - Bigarren hezkuntzako zerbitzuak

2.- EPEA

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da, eta urtero-urtero luza daiteke, urtebeteko luzapenen bidez. Kontratuaren iraupena, luzapenak barne, gehienez ere **4 urtekoa** izango da.

Luzapena egitea kontratazio-organoak erabakiko du, eta enpresariarentzat derrigorrezkoa izango da, baldin eta horren jakinarazpena kontratuaren iraupen-epea baino bi hilabete lehenago, gutxienez, egiten bada.

3.- KONTRATUAREN AURREKONTUA

3.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ondorengoa da:

- 1. kontratua urtea:

23.111€ (19.100 € + % 21ko BEZari dagozkion 4.011 €).

- 2. kontratu urtea:

16.940€ (14.000€ + % 21ko BEZari dagozkion 2.940 €).

- 3. kontratu urtea:

10.890€ (9.000€ + % 21ko BEZari dagozkion 1.890 €).

- 4. kontratu urtea:

10.890€ (9.000€ + % 21ko BEZari dagozkion 1.890 €).

- Unitate prezio bat ezartzen da soziolinguista saioetarako:

- 330 euro ordubeteko saio bakoitzeko, (BEZ salbuetsita).

Kontratu urte bakoitzean gehienez 36 soziolinguistika ordu emango dira guztira egitasmoan parte hartzen duten ikastetxe guztietan banatuta.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontu hori zehazteko kontuan hartu dira zuzeneko eta zeharkako gastu hauek eta bestelako gastu posibleak:

- Gastu zuzenak: % 87
- Zeharkako gastuak: % 7
- Enpresa marjina: % 6
- BEZa: % 21

Lizitatzaileek beraien eskaintza, I. eranskinean ezarritako ereduarekin bat aurkeztu beharko dute. Lehiatzaileek kopuru horiek murriztu eta eskaintza hobetzeko aukera izango dute.

Ondorio guztietarako, ulertuko da eskaintzetan eta lizitazioa esleitzen den zenbatekoan barne hartzen direla zerbitzutik eratorritako kontzeptu guztiak eta esleipendunak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guzti-guztiak (zuzenak nahiz zeharkakoak), lan-bileretara eta azalpen-bileretara joateko gastuak barne.

3.2.KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **98.620** eurotan ezartzen da (BEZ gabe); prozedura eta kontratazio-organoa zehazteko ondorio bakarrerako; eta horrek ez du esan nahi kontratistak zenbateko hori jasotzeko eskubidea eskuratzen duenik;

4.- KONTRATUAREN FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, indarrean den ekitaldiko aurrekontuan finantziazioa aurreikusita dago, aurtengo 10 227 04 335 partidaren kontura.

Bestalde, aurrekontuaren arloan eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietan horretarako beharrezko kredituak gordetzeko.

5.- NOLA ORDAINDU

Ordainketa hilabeteroko fakturen bidez bideratuko da.

Azken faktura, berriz, Udalak egitasmoaren memoria eta kontu-kitapenari oniritzia eman ondoren aurkeztuko du esleipendunak.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan prezioak ez dira berrikusiko, espedientean egiaztatzen den moduan.

7.- BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, behin betiko bermea eratu beharko du, hartutako konpromisoak beteko dituela ziurtatzeko. Berme hori lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 5 izango da, BEZ kenduta. Kopuru hori kontratuaren hasierako iraupenaren arabera kalkulatuko da, hau da, lehen bi urteena.

Bermea ezartzeko epea esleipenaren jakinarazpenean adieraziko da, eta berme hori ezarriko da, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 108. artikuluan ezarritako edozein bitartekoren bidez. Bermea ezarri izanaren egiaztapena bitarteko elektronikoen bidez egin daiteke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, bere aldeko esleipena ez da burutuko.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Kontratatutako zerbitzua baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritakoaren arabera gauzatuko da. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Kontratu honetatik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio esleipendunak, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarri izan ez badira, SPKLren 214.2. artikuluan ezarritako kasu eta baldintzak betetzen badira, eta lagapenak merkatuan lehiaren eraginezko murrizketa eragiten ez badu. SPKLren 214. artikuluaren 2. ataleko b) puntuan ezarritakoa baztertu gabe; ezingo da baimendu hirugarren bati lagatzea, kontratistaren ezaugarrien aldaketa garrantzitsuak eragiten baditu, eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementutzat jo badira.

SPKLren 62.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, kontratuaren arduradun izendatzen da Euskara Saileko teknikoa.

EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK

A) HIZKUNTZA BALDINTZAK

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.8 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, Euskadiko toki-entitateek eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, batetik, herritarrei

bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeko. Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Pasaiako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko araudia ematen duen Udal Ordenantza.

Zerbitzu eta lan hizkuntza:

Kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta, eta erabiltzaileen adina eta hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta, kontratuaren zerbitzu eta lan hizkuntza euskara izango da.

Material sorkuntzari dagokionez, proiektuan zehar sortzen diren dokumentuak xede-taldearen hizkuntza beharren arabera (gurasoak…), euskaraz eta gaztelaniaz izan ahalko dira

Hizkuntza gaitasuna:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako profesionalek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunari dagokienez.

Kontratuak herritarrekin harremana izatea eskatzen duenez Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila izatea eskatuko zaie (3. HE, EGA edo baliokidea).

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek eskatutako gaitasuna badutela.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko du enpresak.

Erabiltzaileekin harremana:

Zuzeneko erabiltzaileekin harremana euskaraz izango da, hots, ikasleekin, irakasleekin eta gainerako eragileekin.

Udalarekin harremana:

Kontratu honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz izango dira.

Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 223.g) artikuluaren arabera.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62 eta 210. artikuluen arabera, kontratuaren arduradunak ikuskatuko du ea kontratuko hizkuntza-baldintzak betetzen diren, segimendua egingo du, eta horretarako behar diren erabakiak hartuko ditu. Ikuskapena ez da bukaeran bakarrik egingo; aitzitik, jarraitua izango da. Halaber, hizkuntza baldintza hauek betetzeko, esleipendunak Euskara Sailaren aholkularitza eta laguntza jaso ahal izango ditu.

B) GIZARTE EDO ENPLEGU ARLOKOAK

Oro har, kontratuaren egikaritze baldintza berezi bezala ezartzen dira honako hauek: Gizarte Segurantzari eta Laneko segurtasunari eta higieneari buruzko legezko xedapenak betetzea eta, bereziki, hitzarmen kolektibo aplikagarria betetzea.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Halaber, kontratuaren egikaritze baldintza berezi gisa ezartzen da kontratistak Ogasun Publikoarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea.

Era berean, kontratuaren egikaritzean parte hartzen duten azpikontratista guztiek bete beharko dituzte kontratuan jasotako egikaritze baldintza berezi guztiak.

9.- KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratista behartuta dago Gizarte Segurantzari eta Laneko segurtasunari eta higieneari buruzko legezko xedapenak betetzera; udalak ez du erantzukizunik izango hori betetzen ez bada.

Kontratistak hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotako arau eta baldintzak bete beharko ditu kontratuaren exekuzio aldian, bereziki, soldatei dagokienez.

Azpikontratazioen kasuan, kontratistak, orobat, zuritu beharko du, dagozkion datuak azpikontratutako enpresei eskatu eta gero, ezen enpresa horiek ere, obra gauzatzean, lan arloan eta gizarte segurantzaren arloan indarrean dauden xedapen horiek aplikatzen dituztela eta, zehazkiago, dagokion Hitzarmen Kolektiboak jasotzen dituen lan baldintzak eta lan segurtasuneko eta lan osasuneko betebehar guztiak aplikatzen dituztela.

Kontratistak egiaztatu beharko du kontratua gauzatzeko kontratatu dituen langileak gizarte segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela; era berean, kontratuko zerbitzu batzuk azpikontratatzen baditu, Udalari jakinaraziko dio, azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, egiaztatu duela azpikontratatutako enpresa horien langileak gizarte segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela.

Kontratistak Udalari helaraziko dizkio egiten dituen lan-kontratu guztien kopiak, kontratuaren iraupena eta langileen lanaldia edozein izanda ere; era berean, gizarte segurantzako kotizazio-buletinak (TC1 eta TC2) helaraziko dizkio. Buletin horiek hiru hilean behin bidaliko dira, hiruhileko natural bakoitzaren bukaeratik gehienez ere 90 eguneko epean; hala ere, komunikazioa 5 lanegunen buruan egin beharko da, Udalak hala eskatuz gero.

Halaber, kontratistak Udalari bidali beharko dizkio, hilero, langileen nominak ordaindu izanaren eta nominetan pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga atxiki izanaren egiaztagiriak.

Ez da inolako lan-loturarik izango kontratua egikaritzeko izendatzen diren langileen eta Udalaren artean; izan ere, langileak enpresa esleipendunaren zuzendaritza- eta antolakuntza-boterearen mende geratuko dira legez ezarritako arlo eta antolamendu guztietan eta, beraz, esleipenduna izango da kasuari ezargarriak zaizkion lege-xedapen guztiak betetzeko erantzule bakarra, bereziki, kontratazio, gizarte segurantza, lan-arriskuen prebentzio eta zerga arloetan; ondorioz, langile horiek ez dute inolako lotura juridikorik ez lan-loturarik izango Udalarekin; alde batera utzita Udalari legez edo kontratuaren arabera dagozkion kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak.

Halaber, kontratuaren klausula batean ezartzen da Udalak ez duela inolako kargarik bere gain hartu beharrik izango, kontratistak, lan, gizarte edo zerga arloetako betebeharren bat ez betetzearen ondorioz.

Kontratistak subrogazioaren ondorioz eraginda dauden langileen ordaindu gabeko soldatei erantzuteko betebeharra izango du, baita ondorioz sortzen diren Gizarte Segurantzako kotizazioak ere, baita kontratua suntsiarazten bada ere eta kontratista berri batek subrogatzen baditu ere, nahiz eta betebehar hori ez

dagokion inolaz ere azkeneko horri. Kasu horietan, Administrazioak, aipatutako soldatak ordaindu gabe daudela egiaztatu ondoren, soldaten ordainketa bermatze aldera, kontratistari beharrezko zenbatekoak atxikitzeari ekingo dio, eta guztiak ordaintzen ez diren artean, ez du behin betiko bermea itzuliko.

10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZEAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sortutako kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz.

Kontratistak erantzukizun zibil orokor, patronal eta lokatiboko asegurua kontratatu beharko du, gutxienez, 250.000 euroko estaldura duena.

11.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatzeko aukera izango da, SPKLren 205. artikuluan espresuki jasotako egoerak gertatzen direnean.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat, 206. artikuluan ezartzen den bezala.

12.- PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratu honetako helburua den zerbitzua ematen bukatu eta gehienez ere hilabeteko epean kontratuaren harrera formala eta positiboa egingo da, eta horren akta egingo da.

Kontratu honen berme-epea 2 hilabetekoa izango da.

13. ESLEIPENDUNARI ZIGORRAK KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK

A.- KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, azken epea betetzeko orduan berandutze-egoeran jarri bada, Administrazioak aukeran izan dezake, kasuaren arabera, edo kontratua suntsiaraztea, edo eguneko zigorrak ezartzea proportzio honetan: kontratuaren prezio osoan dagoen 1.000 euroko kopuru bakoitzeko 2 euro egunero, BEZ gabe.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren (BEZ gabe) 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

Administrazioak aurreko ataletan adierazten diren ahalmen berberak izango ditu, kontratistak epe partzialak betetzen ez dituenean, edo horiek ez betetzeak epe osoa ez betetzea ekarriko duela ondorioztatzen denean.

B.- PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu, kasuaren arabera: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

C.- KONTRATUAREN PRESTAZIOA GAIZKI BETETZEA, EDO KONTRATUAREN KONPROMISOAK

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

EDO EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA

Zigor horiek ez-betetzearen larritasunarekiko proportzionalak izan beharko dute, eta haietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo du kontratuko prezioaren 100eko 10 gainditu (BEZ gabe), eta horien kopuru osoak ezin du kontratuaren prezioaren ehuneko 50 gainditu.

Kontratua gauzatzean esleipendunak egiten dituen arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.

A) Arau-hauste **oso larriak** dira:

- Ezarritako epeetan zerbitzua ematen ez hastea, edo zerbitzua etetea, ezinbesteak bultzatuta izan ezean.
- Zerbitzuak osorik edo zati batean lagatzea, berrakuratzea edo besterentzea, Udalak berariaz baimentzen ez badu.
- Zerbitzua emateko edo gauzatzeko garaian arduragabekeriaz edo arauz kanpo aritzea.
- Deontologia profesionalak onartzen dituen etika- eta heziketa-arauen aurkako jokabideak izatea.

- Zerbitzuaren zaintzaz arduratzen den Zerbitzuko arduradunek emandako jarraibideak desobeditzea, lanaren garapenari dagokionez eta, oro har, zerbitzua arautzen duten arauei dagokienez.
- Kontratatutako langileek zerbitzuaren hartzaileekin istiluak izatea, bai tratu desegokia eman dietelako, bai zerbitzua emateko garaian ondo aritu ez direlako.
- Agiri honetan ezarritako baldintza edo betebeharrak ez betetzea, gerora hortik erator daitezkeen egintzak eragotzi gabe.
- Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

B) Arau-hauste **larriak** dira:

- Udalak esleipendunaren eskura utzitako bitarteko materialen eta azpiegituraren erabilera okerra egitea.
- Arau-hauste arinak behin eta berriro errepikatzea.
- Era batera edo bestera agiri hauetan ezarritako baldintzak kaltetzea eta zerbitzuari kalte larria sortzea.

C) Arau-hauste **arinak** dira:

- Gainerako arau-hauste guztiak, era batera edo bestera agiri hauetan ezarritako baldintzak kaltetu eta zerbitzuari larria ez den kaltea sortzen diotenak.
- Kontratistari zehapen hauek ezar dakizkioke arau-hausteengatik:
- Arau-hauste oso larriengatik: 600 eurotik hasi eta behin betiko bermera bitarteko isunak.

- Arau-hauste larriengatik: 150 eurotik 600 eurora bitarteko isunak, gertakarien larritasunaren arabera.
- Arau-hauste arinengatik: ohartarazpena beti, eta 150 arteko isunak ere jar daitezke, gertakarien larritasunaren arabera.

Hala ere, arau-hauste oso larriak egiten direnean, Udalak bi aukera izango ditu: klausula honetan aurreikusitako zehapen horiek jarri, edo kontratua amaitzeko espedientea abiarazi.

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 211. eta 313. artikuluetan zehazten dira kontratuak amaitzeko arrazoiak.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adieraztea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz, e) kontratuari amaiera ematea, eta f) kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak zehaztea; Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Halaber, kontratazio-organoak ahalmena du kontratuaren egikaritzean kontratistek garatutako jarduerak ikuskatzeko, SPKLk ezarritako eran eta jarritako mugen barruan.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16.- ESLEITZEKO PROZEDURA

Prozedura irekia erabiliz esleituko da kontratu hau. Lehiaketa esleitzeko ondorengo irizpideak izango zaizkie aplikagarri:

A) BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK ..... 51 punturaino

A.1. Proposamen ekonomikoa... 31 punturaino.

- 1. kontratua urteko prezioa. 8 puntu gehienez.

- 2. kontratu urteko prezioa. 5 puntu gehienez.

- 3. kontratu urteko prezioa. 3 puntu gehienez.

- 4. kontratu urteko prezioa. 3 puntu gehienez.

- Soziolinguista saioetako unitate prezioa. 12 puntu gehienez.

Gehienezko puntuazioa emango zaio preziorik merkeenari, eta gainerako eskaintzei puntuazioa emateko formula hau erabiliko da: preziorik txikienaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplika dakiokeen guztizko puntu kopurua. Hau da,

Pl= Ob/Ol x (prezio bakoitzari dagokion puntuazioa)

Formula horretako zeinuak:
Pl: lizitatzailearen puntuazioa
Ob: eskaintzarik merkeenari
Ol: lizitatzailearen eskaintza

A.2. **Bikain ziurtagiria edo Bai Euskarari Ziurtagiria edukitzea.** 20 puntu.

B) BALIO-IRITZIETAN OINARRITUTAKO IRIZPIDEAK.....49 punturaino.

B.1. Proiektua..... 40 punturaino.

- Proiektuaren helburu, oinarri eta eginkizunen garapen-maila. Oinarri metodologikoari egindako ekarpenak, agiri teknikoan deskribatutako helburuak kontuan hartuta: berrikuntza, teknologia berrien

erabilera, saioen aniztasuna eta sormena... (20 puntu gehienez).

- DBHko ezaugarrien ezagutza eta proiektua Pasaiako errealitate soziolinguistikora egokitzeko gaitasuna (20 puntu gehienez).

B.2. Plana garatzeko proposatzen den lan metodologia..... 9 punturaino.

- Zereginak zehatz xehetzea, dedikazioa eta egutegia esleituz: lan-kronograma (5 puntu gehienez).

- Genero-ikuspegiaren zehakakotasuna, inmigranteen eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen integrazioa helburuetan, jarduera-ardatzetan, jardueretan eta metodologian (4 puntu gehinez).

B) puntuari dagokionez, lizitatzaileek aurkeztu beharreko memoria teknikoa dokumentu bakar batean aurkeztuko da eta gehienez ere **20 orri** izango ditu (eranskinak barne) eta Arial motakoa izango da, 12 tamainakoa.

SPKLren 147.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren, berdinketarik balego, honako gizarte-irizpideak aplikatuko dira hurrenkera honetan, eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den uneari dagozkionak:

a) Enpresa bakoitzaren plantillan ezintasuna duten edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden langileen portzentaje handiena; berdinketarik balego, lehentasuna emango zaio plantillan ezintasuna duten langile finkoen kopuru handienari, edo plantillan lan-munduratzen ari den langile kopuru handienari.

b) Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen portzentaje txikiena.

c) Enpresa bakoitzaren plantillan dagoen emakume portzentaje handiena.

d) Aurreko irizpideak aplikatu ondoren, berdinketa izango balitz, zozketa egingo da.

Berdinketa desegiteko irizpide horiek ezartzeko ondorioetarako, lizitatzaileek alderdi horiek egiaztatuko dituzte dagozkion lan-kontratuekin eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-agiriekin, eta adierazitako gizarte-irizpide horiek egiaztatzeko zuzenbidean onartzen diren bestelako agiriekin.

Berdinketa desegiteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko ditu lizitatzaileak, ez lehenago.

EZOHIKO EDO NEURRIZ KANPOKO BALIOAK DAUZKATEN ESKAINTZAK

Ezohiko edo neurriz kanpoko balioak dauzkaten eskaintzak soilik proposamen ekonomikoari dagokion irizpidearen arabera baloratuko dira.

Hasiera batean, neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat joko dira kasu hauetan dauden eskaintzak:

1.Lizitatzaile bakarra aurkeztu denean, eta proposamena lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 25 portzentaje-unitate txikiagoa denean.

2.Bi lizitatzaile aurkezten direnean, eta eskaintzarik txikiena bestea baino 20 portzentaje-unitate txikiagoa denean.

3.Hiru lizitatzaile aurkezten direnean, eta aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 portzentaje txikiagoa denean eskaintza. Hala ere, batez bestekoa kalkulatzeko, eskaintzarik altueraren

zenbatekoa ez da kontatuko, baldin eta batez bestekoa baino 10 unitate portzentual handiagoa bada. Nolanahi ere, neurrigabekotzat joko dira batez bestekoa baino 25 portzentaje-unitate beherago dauden eskaintzak.

4.Lau lizitatzaile edo gehiago aurkezten direnean, eta aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 portzentaje-unitate baino gehiago jaisten direnean eskaintzak. Hala ere, eskaintzetako batek batez besteko hori baino 10 portzentaje-unitatetik gora baditu; beste batez besteko bat kalkulatuko da, aipatutako kasu horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik. Nolanahi ere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, kopuru txikiena duten eskaintzen artean kalkulatuko da batez bestekoa.

17.- KONTRATAZIO MAHAIA

Honako hauek osatuko dute Kontratazio Mahaia:

Burua:

- Laura Re / Ordezkoa: Aintzane Taberna

Kideak:

- Aitziber Latasa Sorondo, udal idazkaria / Ordezkoa: Manex Etxeberria Egia
- Erika Lopetegi Suarez, udal kontu-hartzailea / Ordezkoa: Edurne Ugalde Arruti
- Jaione Urruzola Euskara Sailaren arduraduna / Ordezkoa: Antton Cuadrado

Mahaiaren idazkaria: Ion Mitxelena Lasa / Ordezkoa: Xabier Beñat Vazquez Novo

18. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren ekonomia- eta finantza-kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legean adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak agiri honen 21.5. klausulan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, askietsitako ahalordea erabili beharko dute. Ordezkari baten bidez kontratatuz gero, askietsitako ahalordea erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena daukala egiaztatu beharko du dagozkion egiaztagirien bitartez. Esleipendunaren ordezkariak ere ezin izango du kontratatu, baldin eta lehen aipatutako debekuak badauzka.

Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izan daitezke, soilik kontratu horien prestazioak haiek berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruan badaude, haien estatutu edo sortze-arauen arabera.

Enpresariek, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Aurreko ataletan adierazitako kontratatzeko gaitasun, kaudimen eta debekurik ezaren baldintzak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua egiteko unean bere horretan iraun behar dute.

19.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEAK

Proposamenak aurkezteko epea iragarkia kontratatzailean profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera **15 egun naturalekoa** izango da. Epearen azken eguna larunbat, igandea edo jai-eguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Euskadiko Kontratazio Publikoko kontratatzailearen profilera honako lotura honetatik sar daiteke: http://www.contratacion.euskadi.eus. Pasaiako Udaleko eta bere erakunde autonomoetako **KONTRATATZAILEAREN PROFILA** Eusko Jaurlaritzako kontratazio-sisteman sartuta dagoen arren, ondorengo helbidetik ere sar daiteke sistema horretara: http://www.pasaia.eus/eu/kontratatzailearen-profila

Proposamenak soilik bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, agiri honen 20. klausulan ezarritako eran, kontratatzailearen profilean argitaratzen den iragarkian adierazitako epearen barruan.

Baldintza-agiriak eta agiri osagarriak kontratatzailearen profilean izango dira eskuragarri.

Baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriei buruzko informazio osagarria eskatzen badute lizitatzaileek, informazio hori emango zaie proposamenak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino sei egun lehenago, baldin eta eskaera proposamenak aurkezteko epea bukatu baino hamabi egun lehenago egiten bada, gutxienez.

Proposamenak egiteko beharrezkoa bada lekura bertaratzea edo agiriari erantsitako dokumentazioa “in situ” kontsultatzea, eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeak luzatu egingo dira, eragindako interesdunek proposamenak prestatzeko nahikoa denbora izan dezaten.

20.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

Prozeduran parte hartzeko eskatutako dokumentazioa eta dagozkion proposamenak **artxibo edo gutun-azal elektronikoen barruan aurkeztuko dira; ezin dira paperean aurkeztu**.

Eskaintzak aurkezteko BITARTEKO ELEKTRONIKOAK BAKARRIK erabiliko dira, honako aplikazio honen bidez: LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA; eta sistema hori hemen kokatuta dago: KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA

Proposamenak elektronikoki aurkezteko beharrezko informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman jasota daude (www.Contratacion.euskadi.eus).
Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gertakariak konpontzeko zerbitzua: 945016298.

Proposamenak gutun-azal hauetan aurkeztuko dira:

A GUTUN-AZALA: AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA

Aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioaren gutun-azalean lizitatzaileek honako agiri hauek sartuko dituzte:

1.- Erantzukizunpeko adierazpena, SPKLren 140. artikuluan xedatutakoarekin bat; eredu honen arabera: **Europako Kontratazio Agiri Bakarra** (EKAB), urtarrilaren 5eko 2016/7 araudiaren bidez onartua. Adierazpena sinatuta aurkeztuko da, dagokion identifikazioarekin.

Agiri hori helbide honetan beteko da: https://visor.registrodelicitadores.gob.es, eta kontratatzailearen profilean argitaratutako artxiboaren bidez.

Hala ere, enpresaria Sektore Publikoko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo horren baliokidea den erregistro autonomikoan izena emanda badago, SPKLren 341. artikuluan aurreikusitako irismenarekin, edo Europar Erkidegoko estatukide baten datu-base nazionalen batean ageri bada, agiriak elektronikoki biltegiratzeko sistema edo aurrez kalifikatzeko sistema gisa, eta organo horiek agiri horietara doako sarbidea badute; ez da beharrezkoa izango leku horietan jasotako datuen egiaztagiriak aurkeztea.

Enpresariak beste enpresa batzuen kaudimena edo bitartekoak erabiltzen baditu, Legearen 75. artikuluarekin bat, beste enpresa horiek ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, kasu horietarako beharrezko informazioa jasotzen duena, Europako kontratazio agiri bakarrarekin bat.

Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkartea osatuz aurkezten direnean, parte hartzen duten enpresa guztiek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dute, eta kasu horietarako Europako kontratazio agiri bakarrean eskatzen den informazioa jasoko dute adierazpenean.

2.- Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta aurkezten badira, **aldi baterako enpresa-elkartea osatzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute**, **agiri honen II. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera,** SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatzen denarekin bat; eta elkarte horren iraupena, gutxienez, kontratua iraungi artekoa izango da.

Konpromiso-idatzian honako datu hauek jasoko dira: elkartea osatzen dutenen izenak eta zirkunstantziak; horietako bakoitzaren parte-hartzea; eta kontratua esleitzen bazaie, formalki aldi baterako elkartea eratzeko konpromisoa. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute.

3.- Europar Batasuneko beste estatu batzuetako edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten beste estatu batzuetako enpresak badira, eta kontratua Espainian gauzatzekoa bada, beste adierazpen hau ere aurkeztu beharko dute: kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla jakinarazteko adierazpena, eta lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diotela adierazteko, kasua hori balitz.

4.- Erkidegotik kanpoko enpresak badira, SPKLren 68.1. artikuluan araututako txostena aurkeztu beharko dute. Halaber, kontratua Espainian gauzatzekoa bada, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla jakinarazteko adierazpena, eta enpresari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diotela adierazteko, kasua hori balitz.

5.- Halaber, lizitatzaileek **III. eranskina aurkeztu beharko dute: jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko datuak: lizitatzaileek posta elektronikoko helbide bat adieraziko dute, jakinarazpen edo komunikazio elektronikoak egin direlako oharrak jasotzeko.**

Esleipena lortzen duen lizitatzaileak agiri honen 21.5. klausulan eskatutako dokumentuak dituela eta baliozkoak direla egiaztatu beharko dio kontratazio organoari, kontratua esleitu aurretik. Beraz, ez da beharrezkoa agiri honen 21.5. klausulan eskatutako dokumentazioa proposamena aurkezteko unean aurkeztea; nahikoa da **Europako kontratazio agiri bakarra** (**EKAB**) aurkeztea.

B GUTUN-AZALA: BALIO-IRITZIETAN OINARRITUTAKO IRIZPIDEAK.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Balio-iritzietan oinarrituriko irizpideei buruzko agiriak jasoko ditu, baldintza-agiri honen 16.B. klausulan adierazitakoak:

B.1. Proiektua
B.2. Plana garatzeko proposatzen den lan metodologia

C GUTUN AZALA: **BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK.** Eta ondorengo agiriak izango ditu:

- Administrazio-baldintza partikularren agiri honen **I. eranskina,** behar bezala beteta.

- Bikain ziurtagiria edo Bai Euskarari Ziurtagiria.

21.- AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA LANTZEA, ETA ENPRESAK HAUTATZEA.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, ondorengo jarduketak egingo dira:

1. Honako agiri hauek egiaztatuko dira: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, **Europako kontratazio agiri** bakarraren ereduaren arabera (A gutun-azala); eta, agiri honen 20.A klausularen arabera, A gutun-azalean jaso beharreko gainerako dokumentazioa. **"A GUTUN-AZALA": AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA"**.

2. "B" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA.

"**B" kartazala, balorazio-iritzietan oinarritutako irizpideak dituena**, jendaurreko egintza batean irekiko da kontratatzailearen profilean ezarritako egunean.

"B" gutun-azala jendaurrean ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak B gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa helaraziko dio hori baloratzeko ardura duen organoari, eta organo horrek balorazio-txostena egin beharko du, proposamen ekonomikoa jendaurrean ireki aurretik.

3. "C" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA.

B kartazala ireki eta horretan jasotako agiriak baloratu ondoren, C kartazala irekiko da jendaurrean kontratatzailearen profilean adierazten diren egun eta orduan.

Egintza horretan jakinaraziko da iritzi-balioetan oinarritutako irizpideengatik eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa.

4.- ESKAINTZEN SAILKAPENA.

Irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu mahaiak, handienetik txikienera antolatuta, eta esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

5. ERREKERIMENDUA ESLEIPENA LORTZEN DUEN LIZITATZAILEARI

Aurreko jarduketa horiek egin ondoren, ESLEIPENA LORTZEN DUEN LIZITATZAILEARI eskatuko zaio, **hamar laneguneko epean**, eskaera jasotzen duenetik kontatzen hasita, ondorengo agiriak aurkez ditzan:

a) Hautagaiaren edo horren ordezkariaren nortasuna egiaztatuko duen agiriaren fotokopia. Beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu: notario-ahalordea. Ahalorde hori erakunde honek askietsiko du, gutun-azal honetan aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeko prozesuan.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa bada: eratze- edo aldaketa-eskritura (merkataritza-erregistroko idazpenaren araberakoa) eta identifikazio fiskaleko zenbakia; merkataritza-legeriak hala eskatzen duenean. Betekizun hori bete beharrekoa ez bada, jarduteko gaitasuna eratze-agiriaren edo eskrituraren bidez, estatutuen bidez edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da, jarduera erregulatzeko arauak bertan jasota, eta, hala dagokionean, dagokion erregistro ofizialean izena emanda.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, dagokion erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie. edo, bestela, zinpeko aitorpena edo ziurtagiri bat aurkeztuko dute, aplikagarriak diren Europar Batasuneko xedapenak kontuan hartuta.

Atzerriko gainerako enpresaburuek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute, Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita edo enpresako egoitzaren lurralde-esparruari dagokion Kontsuletxeko Bulegoaren txostena erakutsita.

c) Zinpeko berariazko aitorpena, SPKLren 71. atalean kontratatzeko zehaztutako debekurik ez daukala agertuz.

2017ko azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2019 Legearen 71.1.d artikuluaren arabera, ezin izango dira kontratatu zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituztenak.

Hori horrela, Pasaiako Udalak informazioa kontsultatu edo bildu ahal izango du, honako hauek egiaztatzeko, Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoari (NISAE) buruzko informazio-zerbitzuaren bidez:

a) Gipuzkoako Foru Aldundia - Zerga betebeharrak egunean izatea.

b) Bizkaiko Foru Aldundia - Zerga betebeharrak egunean izatea.

c) Arabako Foru Aldundia - Zerga betebeharrak egunean izatea.

d) Estatuaren Administrazio Orokorra Zerga Administrazioko Estatu Agentzia (AEAT) - Zerga betebeharrak egunean izatea.

e) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - Gizarte Segurantzari ordaintzeko betebeharretan egunean egotea.

Halaber kontratistari eskatu ahal izango zaizkio zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituelako frogatzeko egiaztagiriak.

d) Honako hau egiaztatu behar da: jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoela, kontratuaren gaiari dagokion atalean; horretarako, alta agiria aurkeztuko du, ekitaldi honi badagokio, edo bestela, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren azkeneko ordainagiria aurkeztuko du; batarekin zein bestearekin batera, aipatu zergan baja eman ez duela ziurtatzen duen erantzukizun-aitorpena aurkeztu behar du.

e) Lizitatzailearen ekonomia- eta finantza-kaudimenaren eta kaudimen tekniko edo profesionalaren frogagiriak.

e.1. Enpresariaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa bitarteko **hauen bidez** egiaztatu daiteke:

e.1.1. Urteko negozio-bolumena kontratuaren arloan: amaituak diren azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, bolumen hori, gutxienez, 20.000 eurokoa izango da.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko bolumena urteko kontuen bidez egiaztatuko da; urteko kontu horiek onartuta egongo dira eta Merkataritza Erregistroan jasota egongo dira, enpresaria erregistro horretan izena emanda badago, bestela, dagokion erregistro ofizialean jasota egongo dira. Merkataritza Erregistroan izena emanda ez dauden enpresariek euren urteko negozio-bolumena egiaztatuko dute inbentario-liburuen eta urteko kontuen bidez, eta horiek Merkataritza Erregistroak legeztatutakoak izango dira.

e.1.2. Urteko kontuak onartzeko betekizuna iraungita duen azken ekitaldi ekonomikoa ixtean, orduan dagoen ondare garbia edo aktiboen eta pasiboen arteko ratioa, 20.000 euroko zenbatekoan edo hortik gora.

e.2. Lizitatzailearen kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko ondorengo bitartekoak erabiliko dira, eta **guzti-guztiak** egiaztatu behar dira:

e.2.1. Kontratuaren xede diren mota edo izaera antzeko lanak egiten izandako esperientzia, eta hori egiaztatzeko interesdunak azken 3 urteetan egindako lanen zerrenda aurkeztuko du. Azken hiru urteetan, egindako lanen urteko gutxieneko balio metatua, exekuzio handieneko urtean, 10.000,00 eurokoa izan da.

Kontratuaren xedekoa denaren mota edo izaera bereko lanak egiten duen esperientzia; hori egiaztatzeko, interesdunak azken hiru urteetan egindako lanen zerrenda aurkeztuko du.

e.2.2. e.2.2. Baliabideak adskribatzea, prestakuntza:

Esleipendunak 2 langile adskribatu beharko ditu kontratura.

Zerbitzua emateko, lan-taldea osatuko da.

Teknikari batek izango du talde profesionalaren ardura, eta bera izango da Udaleko teknikarien solaskidea.

Pertsona horretaz gain, gutxienez langile bat kontratuari atxikiko dizkio adjudikaziodunak proiektuaren garapenerako, eta horiek arduratuko dira DBHko ikasleekin zuzeneko lanketa egiteaz ere (soziolinguistika saioak emateaz...). Lan-taldeko kide horiek gutxienezko ikasketa hauek dituztela egiaztatu beharko dute: Euskal Filologia, Soziologia, HIZNET- Hizkuntza Plangintza Graduondoa edo “Euskararen Jabekuntza, Kudeaketa eta Hizkuntza-praktikak XXI. Mendean” titulua.

Lantaldeko pertsona batek derrigorrez izan beharko dute adimen emozionalari buruzko formazioa (psikologia arloko formazioa, coach ikasketak, fazilitazio formazioa...) edo DBHko gaztetxoen hizkuntza portaeretan eragiteko egitasmoetan esperientzia (gutxienez 2 ikasturtetan parte hartu izana).

Proiektuari atxikitako pertsonen curriculuma eta dagozkion agiriak aurkeztu beharko dira, hemen jasotakoak egiaztatu ahal izateko.

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-elkartea eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera.

Goiko a), b), c) d), e) 1. eta 2.1. puntuetan adierazitako baldintzak ziurtagiri hauen bidez egiaztatu daitezke: Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria, Estatuko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiria, SPKLren 97. artikuluak xedatutakoaren arabera. **Ziurtagiri horri lizitatzailearen adierazpen arduratsua erantsi beharko zaio, adieraziz dagokion ziurtagirian jasotako**

egoerak ez direla aldatu.

g) Behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria aurkeztea.

Adierazitako epean eskatutakoa betetzen ez bada, lizitatzaileak haren eskaintza kendu duela joko da, eta hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazioa; horretarako, eskaintzen sailkapen hurrenkera jarraituko da.

22. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Pasaiako Udalak kontratazio-prozedura honen barruan egin beharreko jakinarazpen eta komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez bakarrik egingo ditu, Pasaiako Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez.

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, enpresek bidaltze-oharra jasoko dute ondorio horietarako eman duten helbide elektronikoan.

Komunikazio eta jakinarazpen horiek egiteko, lizitatzaileek III. ERANSKINA “JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK EGITEKO DATUAK” bete eta A GUTUN-AZALEAN sartuko dute.

23.- ESLEITZEA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK

Esleipena kontratazio-organoak egingo du, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den 15 egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipenaren jakinarazpenaren biharamunetik kontatzen hasita, esleipendunak honakoak egingo ditu:

- Kontratua formalizatzea.

- Erantzukizun zibil orokor, patronal eta lokatiboko asegurua kontratatu, gutxienez, 250.000 euroko estaldura duena.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 18ko 26/2015 Legea betez, lizitatzaileek ziurtatu behar dute adingabekoekin harremana izango duten langileak ez direla kondenatuak izan sexu-delituengatik. Horretarako, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri hori Kultura Sailean aurkeztu beharko dute, kontratua egikaritzen hasi aurretik.

III. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA

24.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Kontratuan aurreikusi gabeko kasuetarako, honako lege eta araudietan xedatutakoa ezarriko da: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituena; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen

maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen aurkakoak ez diren arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

25.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLren hogeita bosgarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, bertan biltzen baitira honako lege eta arauetan xedatutakoak: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa, eta hori garatzen duten arauak; Europako Parlamentuaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27ko Kontseiluak onartua (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra).

26. JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA

Kontratua betetzerakoan sor daitezkeen arazoak kontratazio organoak erabakiko ditu. Arazoak konpontzeko hartutako erabakiek administrazio bidea agortuko dute eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dira zuzenean. Hala ere, kasuan kasu SPKLn edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1ko 39/2015 Legean araututako kontratazio-alorreko errekurtso berezia bidezkoa izan daiteke.

27. EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALORREAN BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

- Eusko Legebiltzarreko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako den 2/2007 Legean ezarritako printzipioak eta betebeharrak betetzea.

- Dokumentu, publizitate, irudi edo materialetan ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeak baztertu edo estereotipo sexistak erakusten dituzten irudirik ere. Halaber, emakumeen irudiari dagokionez, balio hauek sustatuko dira: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna, eta rolen eta genero identitateen aniztasuna.

- Jarduerak egiten direnean, zeharka emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bultzatzea.

- Bereizita egiten diren jardueretan sexuaren arabera bereizitako informazioa sortzea eta erabiltzea.

<u>Betekizuna:</u>

- Baztertuta geratuko dira sexu-bazterkeriagatik zehapena jaso duten erakundeak, zehazki, zehapenean ezartzen den denboraldian.

28. KULTUR ANIZTASUNAREN ALORREAN BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

- Enpresa esleipendunak bermatu egin beharko du prozesuko jarduera guzti-guztien parte-hartzea errespetuzkoa dela, eta kontuan hartzen direla jatorri aniztasuna, aniztasun funtzionala eta sexuen aniztasuna. Horrenbestez, jarduerak eta hizkuntza modu inklusiboan egokitu behar izango dira, aukera berdintasuna eta baldintza berak izate aldera.

- Enpresa esleipendunak ez ditu hizkuntza eta irudi estereotipatu, arrazista, xenofobo eta

diskriminatzaileak erabiliko, ez prozesuan ez materialetan eta ez gainerako euskarrietan. Aniztasunaren ikuspuntua zeharka txertatu beharko da (jatorri aniztasuna, sexu aniztasuna eta aniztasun funtzionala).

29. ENPRESA KONTRATISTAREN LAN-KONTRATUKO LANGILEEI BURUZKO ARAU BEREZIAK

A) Enpresa kontratistari bakarrik dagokio langileak hautatzea, hots, agirietan eskatutako titulazio eskakizunak betetzen dituztelarik, kontratua gauzatzeari atxikitako lan taldea osatuko dutenak, nahiz eta kontratazio organoak eskakizun haiek betetzen dituztela egiaztatu dezakeen. Enpresa kontratista saiatuko da lan taldean egonkortasuna egon dadin, eta haren osaketan egon daitezkeen aldaketak unean unekoak eta arrazoituak izan daitezen, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez galarazteko, kontratazio organoa uneoro informatuz.

B) Enpresa kontratistak bere gain hartzen du kontratua betetzeko ardura duen lan taldea osatzen duten langileen gainean enpresaburu orori datxekion zuzentze ahalmena modu erreal, eraginkor eta jarraitu batez erabiltzeko betebeharra. Bereziki, alderdi hauek bereganatuko ditu: soldaten negoziazioa eta ordainketa; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; langileen ordezpenak, bajak edo hutsuneak direla-eta; Gizarte Segurantza arloko lege betebeharrak, kotizazioen eta prestazioen ordainketa barne, hala badagokio; laneko arriskuen prebentzio arloko lege betebeharrak; diziplinazko ahalmena erabiltzea; eta enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu loturatik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak.

C) Enpresa kontratistak bereziki zainduko du kontratua gauzatzeko atxiki diren langileek euren jarduera egin dezaten, dauzkaten eginkizunen neurria gainditu gabe, hau da, kontratuaren xedean jasotako jardueraren mugak errespetatuz.

D) Kontratistak bere langile taldeko kidea den koordinatzaile tekniko edo arduradun bat, gutxienez, izendatu beharko du, eta hark ondoko betebeharrak izango ditu:

- Enpresa kontratistaren eta erakunde kontratatzailearen arteko solaskide izatea; enpresa kontratistaren eta kontratuari, batetik, eta erakunde kontratatzaileari, bestetik, atxikitako lantaldeko langileen arteko komunikazioa bideratzea, kontratuaren gauzatzetik eratorritako alderdi guztietan. Administrazioaren eta zerbitzuen enpresa hornitzailearen arteko harremana koordinatzaile teknikoaren edo arduradunaren bitartez gauzatuko da. Uneoro erraz aurkitzeko moduan egon beharko du.

- Kontratua gauzatzeko ardura duten langileen artean lana banatzea, eta langile horiei kontratatutako zerbitzua betetzeko beharrezko agindu edo argibideak ematea.

- Lantaldeko langileek eman zaizkien eginkizunak ondo betetzen dituztela ikuskatzea, eta langile horiek euren lanpostura agertzen direla kontrolatzea.

- Kontratua gauzatzeko atxiki diren langileen oporrak antolatzea; horretarako, enpresa kontratistak enpresa kontratatzailearekin koordinatu behar du, zerbitzuaren funtzionamendu ona gal ez dadin.

- Erakunde kontratatzaileari jakinaraztea kontratua gauzatzeko izendatutako lantaldean egiten diren aldaketak, unean unekoak nahiz iraunkorrak.

Pasaian,

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

I. ERANSKINA. BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEEI DAGOKIEN PROPOSAMEN-EREDUA

Lizitatzailearen datuak: Izen-abizenak ..... Helbidea ..... Posta kodea ....., NAN zenbakia ....., Telefonoa..... Helbide elektronikoa....., zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin. Ordezkariaren datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak .....Helbidea ..... Posta kodea ....., Telefonoa ..... NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera) ....., ... kontratatzeko asmoz ..... k dei egindako prozedura ireki bidezko kontratazioan parte hartzeko asmoa dudalarik, hona hemen nire ADIERAZPENA:

1)**Hitz ematen dut kontratua ondorengo baldintzen arabera egikarituko dudala:**

A1. Proposamen ekonomikoa:

- 1. kontratua urtea:

- Prezioa (BEZik gabe) urteko:.....€

- Prezioa (BEZa barne) urteko:.....€

- BEZa urteko:
.....€

- 2. kontratu urtea:

- Prezioa (BEZik gabe) urteko:.....€

- Prezioa (BEZa barne) urteko:.....€

- BEZa urteko:
.....€

- 3. kontratu urtea:

- Prezioa (BEZik gabe) urteko:.....€

- Prezioa (BEZa barne) urteko:.....€

- BEZa urteko:
.....€

- 4. kontratu urtea:

- Prezioa (BEZik gabe) urteko:.....€

- Prezioa (BEZa barne) urteko:.....€

-BEZa urteko:
.....€

- Soziolinguista saioetako unitate prezioa:

- .....€ ordubeteko saio bakoitzeko, (BEZ salbuetsita).

2) Arau teknikoen agiria, administrazio-baldintza zehatzen agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, nire gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

Pasaian, 20.....ko.....aren.....(e)an

Sinadura

II. ERANSKINA. FORMALKI ENPRESEN ALDI BATERAKO ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOA

..... jauna/andrea (NAN: .....)..... neure izenean edo ..... enpresaren izenean.

..... jauna/andrea (NAN: .....)..... neure izenean edo ..... enpresaren izenean. ADIERAZTEN DUTE: ..... espedienteari dagokionez:

1.- Bere gain hartzen dutela formalki aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa, honako parte-hartze hauekin: % ..... eta % .....

2.- Enpresa-elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar izendatzen dutela, eskubideak erabiltzeko eta kontratuaren betebeharrak betetzeko honako hau: ..... jauna/andrea.

Pasaian, ...

Izenpetua:

III ERANSKINA. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK EGITEKO DATUAK

.....jauna/andrea
(NAN: .....), neure izenean edo ..... enpresaren izenean (IFK:.....), ... espedienteari.

Hona hemen nire ADIERAZPENA: Jakinarazpenak eta komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez jasotzeko datuak hauek dira:

a) Hartzailea: ……..……..……..

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

b) Oharrak jasotzeko helbide elektronikoa: ……..…….

.....n, 20.....ko.....aren .....(e)an.

Izenpetua: